

**ERABAKIA 2017ko urriaren 27koa , UPV/EHUko GERENTEARENA, LANPOSTU BAT EGINKIZUNEN ESLEITZEAN ALDI BATEZ BETETZEKO DEIALDIA IRAGARTZEKO DENA, UNIBERTSITATE HONEN III . TALDEKO LAN-KONTRATUDUN LANGILEEN ARTEAN.**

**L 413**

**Laborategiko teknikari espezialista  
ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA**

**EGITEZKO AURREKARIAK**

UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko eranskinean aipatzen den lanpostua hutsik egongo dela aurreikusita dagoenez, Gerentziak lanpostu hori zereginak-esleitzean aldi batez beteko dela iragartzen du, hori guztia Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Lan Kontratuko Langileen III Hitzarmenaren 20 artikuluan adierazitakoarekin bat etorritz, eta UPV/EHUko Errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiak eman dizkion ahalmenez baliatuz (erabaki hori gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko da, eta 2017ko otsailaren 3ko EHAAn argitaratu zen).

**OINARRIAK**

**Lehena:** Deialdiko lanpostua zereginak esleitzearen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen, 2013ko uztailaren 4ko Akordioan araututakoa izango da; hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioak. Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2013ko uztailaren 18ko bilera berretutakoa.

Aipatutako Akordioa ikus daiteke Administrazio eta zerbitzuetako langiletako web orrialdean / Barne Deialdiak / Lan Kontratupeko Langileak.

**Bigarrena:** Eskabideak aurkezteko epea deialdia EHUko web orrian argitatatzen den hurrengo egunetik bost egun baliodunetan amaituko da, eta pertsonalerako gerenteordetzara zuzendu beharko dira, Euskal Herriko Unibertsitateko erregistro orokorrean aurkeztuz edo, era berean, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak (urriaren 2ko EAO), 16.4 artikuluan jasotako beste edozein bide erabiliz.

Euskal Herriko Unibertsitateko erregistroak zehazten dira Euskal Herriko Unibertsitateko 2012ko maiatzaren 16ko erabakian daude jasota (2012ko ekainaren 18ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eta Interneteko helbide honetan: [http://www.ehu.es/erregistroko\\_bulegoak.html](http://www.ehu.es/erregistroko_bulegoak.html)

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetan kokatutako erregistroen irekiera-ordutegia, astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara izango da, goizeko ordutegian eta 15:00etatik 16:30etara arratsaldeko ordutegian. Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Santuko eta Eguberrietako txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etan amaituko da.

**Hirugarrena:** Eranskinean adieraziko diren baldintzak betetzen dituzten lan-kontratudun langileek eskatu ahal izango dute erabaki honen bidez lehiaketara ateratzen den lanpostua aldi batez betetzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean lehiatzaileek baldintza eta betebeharrak guztiak beteta izan beharko dituzte.

**Laugarrena:** Balioztatu beharreko merezimenduak Euskal Herriko Unibertsitateko AZPko lan kontratudunen plangintza batzordearen, 2013ko uztailaren 4ko Akordioan araututakoak izango dira, hots, administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzen duen Akordioan, bertan ezarritako muga barruan.

Eskariak aurkezteko epearen amaierako egunean betetzen diren merezimenduak besterik ez dira aintzat hartuko.

**Bosgarrena:** Eskaerarekin batera, izangaiek eskaturiko baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dituzte, baita lehiatzaileek beste administrazio publikoetan emandako zerbitzuak, Europar Batasuneko hizkuntza ofizialak eta titulu akademikoak egiaztatu behar izango dituzte, 2013ko uztailaren 4ko akordioan 5.4 puntuan esandakoa salbu.

Euskal Herriko Unibertsitateak ofizioz balioetsiko ditu antzinatasunari eta Euskal Herriko Unibertsitateko lan eginiko zerbitzuei dagozkion merituenak.

**Seigarrena.-** Deialdi honetan parte hartzen dutenek uko egin diezaiokete deialdian parte hartzeari behin-behineko puntuazioaren aurkako erreklamazioa aurkezteko epea amaitzen den egun arte. Gero, esleipenari uko egiten badiote, AZP lan kontratudunei eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeari buruzko akordioaren 4.1.1 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

## ERREKURTSOAK

Erabaki honen kontra lan-auzibideko epaitegi eskudunaren aurrean aurkeztu ahal izango du interesdunak demanda. Demanda jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, Erabaki hau argitaratzen den biharamunetik. Hori guztia, 36/2011 Legeak urriaren 10eko Gizarte-arloko jurisdikzioa arautzen duen Legeko 69,2. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2017ko urriaren 27an

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2017ko urtarrilaren 25eko erabakia  
(2017ko otsailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria).

GERENTEA,

Miren Lorea Bilbao Arteché



## I. ERANSKINA

### 2017ko urriaren 27ko EGINKIZUNEN ESLEIPENA deialdiaren Erabakia

**Lanpostua:** Laborategiko teknikari espezialista  
**Erref:** L 413  
**Zenbatgarrena:** 69  
**Lanaldia:** Arautua  
**Taldea:** III  
**Kategoria Profesionala:** Kimikako teknikari espezialista  
**Espezialitatea:** Kimika  
**Maila:** 21  
**HE:** 2.09/09  
**Langunea:** ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA  
**Campus:** BIZKAIA  
**BE:**

### Lanpostua aldi batez betetzeko baldintzak

Eginkizunak esleitzeko deialdietan parte hartu ahal izango dute honako baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- UPV/EHUko lan kontratadun langile finkoa izatea eta jarduneko zerbitzuan egotea edo nahitaezko eszedentzian, seme-alabak zaintzeko eszedentzian, edo beste administrazio publiko batean aritzeko eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatu izana (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan), betiere, deialdia egin aurreko urtean prozedura honen bidez izapidetutako eginkizunen esleipenerako izendapenik izan ez badu.
- Esleitu nahi diren eginkizunak dituen lanpostuko talde, kategoria eta espezialitate berekoa izatea, lanpostua talde bitara irekita dagoenean izan ezik; kasu horretan bi taldeetako edozeinetako lan kontratadun langileek parte hartu ahal izango dute.
- UPV/EHUko aldi baterako lan kontratadun langileek ere deialdi hauetan parte hartu ahal izango dute 4.1.2 atalean ezarritako baldintza betetzen badute, baina eginkizunen esleipenerako lan kontratadun langile finkorik egon ezean baino ez dituzte aukeratu.
- 2 . hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura mailekin parekatzeko den Dekretuak adierazten duen legez (Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua) edo, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko den Dekretuan esandakoari jarraituz. (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua).